

# + Anaitasuna

VI URTEA - N.º 70

Suplemento de la Hoja  
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Martia (3) 1960

## SEME ALABAK ETA EUSKEREAA

Euskaltzaindiak sariketa bat ipiñita dauko Bizkaiko neska-mutillen artean egitekoa aurtengo maiatza inguruan. Bertan parte artuko dabenak amar urtetik amabost urtera izan bear dabe eta sariak euskerazko esamiña bat egiñik emongo dira. Kristiñau dotriña, euskal kanta batzuk, ipuin bat norberak gura dauen langoa, eta beste gauza txiki batzuk eskatuko dira. Onegaz euskalzaletasuna eta euskerearenganako amodioa erein gura dira umeen buruetan, Euskalerriko geroa direan gizon eta emakumetan.

Eta izan be euskerearen geroa ortxe dago. Bizirik iraun daien gura badogu aiperrik da umeak erderara joerea izan eta zuzenduten ezpadogu euskerea alderdi guztietan sarturik. Eta euskereak eskolan sarrearik eztaukan bitartean eskolatik kanpo ekin bear deutzagu sendo baiña errespeto aundiagaz. Orretarako erri guztietan norbaitek egin bear leuke zertxobait umeak gertetan esamiña oneitarako. Gaiñera ezta gauza aundia egin bear dana, eta atera leitekean frutua ikaragarria izan leiteke. Naikoa litzake asteko erri bakotxean dozenerdi ume norbaitek gertauko balitu. Ume orreik za-

balduko leukie lagunen artean euskerearenganako joerea eta igarri barik indarra artzen asiko litzake gure izkuntzea daukazan baiño sustrai zabalagoetan. Eskatuko dana ezta gauza aundia izango. *Euskal-kantak* liburutik bertso batzuk ikasi ezkeron naikoa da, dotriña apur bat, gauza gitxi.

Badakigu erri batzuetan batek baiño geiagok gogoz artu dauela zeregin au eta umeak Bilbora etorteko pozik dagozala. Eta seguru gagoz egun ori ez jakiela aiztuko errez bizitza osoan. Beste erri guztietan be beste ainbeste egin bear litzake eta duda barik urte batzuen buruan eskolarako oiñarri ederra jarriko litzake.

Umeen izenak aprillaren 15-erarte bialdu leitekez Euskaltzaindiaren etxera (Ribera, 6 - Bilbao) eta esamiña maiatza inguruan izango da aurrez jakinerazoko dan egun batean.

Aurtengo lenengo esamiña oneik ikusita urrengo urteetan gauza aundiagoetara joteko gauza bagara, oraindiño sendo bizi garean seiñalea izango da. Eta alegiñak egin daiguzan seiñale ori argi ta garbi Euskalerraren biotzean iminten.

Euskaldun seme-alabak euskeraz egin bear dogu.

# DAKAR ALDETIK

Bermeo, Lekeitio eta Elantxobe-ko laguneri.  
Jaungoikoak zoriona emon deizuela.

Bertoko jakingarri batzuk idatziko deusuedaz gaur: zelan bizi garean, zer ikusten dogun, ordu libreetan zetan diardugun, eta abar.

Dakarreko portuan gagoz. Portu aundia. Emen mundu guziko barkuak ikusten dira. Espainiolak gitxi. Beñola, Israel-go untzi eder bat ikusi genduan. Gure barku nodrizak portu erdian egoten dira, geuk ekarten dogun arraiñari begira, eta atenez ondo betetan direanean, taka taka Canarias-era joaten dira; antxe dagoz arrain fabrikak. Barku nodrizeari atrakatuta gagozan bitartean, batzutan esku aparejua errietan dogu uretara, eta polito artzen izan dogu arraiña: peskadillak, txitxarroak, berdelak. Berton portuan be, arrain asko dago: baltzak euren bate-likoetan arraiñetan ibiltzen dira; eta beñola, txerbola sarda aundi bat ikusi genduan gure kostaduan.

Lantzean bein, sarea sikatuten joaten gara portuko moilla batera; arte bat edo bi eskogiteko be egoten da lekua, askotan moilla zati aundi bat ur-zakuz beterik egonarren. Emen Dakarren eta Senegal guztian, urra da abera: kuntzarik aundiarena. Territorio pobrea. Orrexegaitik-edo ez dabe gura bertoko baltzak independentzia osoa; Dakarreko kaleetan pobre asko ikusten da, eta moillearen kontra jaten gagozanean, euliak lez etorten jakuz mutil gazteak, jateko apurtxu bat eskatuten. Guri, Jaungoikoari esker, ez jaku ezer falta izan oraiñarte, etxe-ko bigunkeri ta gozokeriak euki ezarren eta bertoko ibikerea guztiz gogorra izan. Gure bizimodu au zerbait bigundutearren-edo, aurtzen be Dakarreko Monja Frantziskotarrak akordatu egin dira gugaz: Urte Barri egunean, embarkaziño guztieri paketa aundi bana erregatu eukien borondaterik onenagaz.

Portuan dempora gitxi egoten gara geienetan: eldu bertara, emon arraiña, erosi

plazan biberak, joan korreora, artu edurra ta ura, bete gasoilez tankak, eta ainbat arraiñen barriro itxasora, beste zortzi, amar edo amalau egunerako.

Itxasoa da gure bizilekua. Berton pasetan doguz gure poz ta penarik aundienak. Turista antzera ibilteko, ez da leku txarra. Dakarretik urre gabiltzanean, oraiñarte beñik bein, freskotxu egiten izan densku beti egoaldean gagozanean barriz, beti bero. Zerbait egorago, beroa aundiago, aizea bigunago itxasoa bareago. Zortzi graduko luzeran, Dakarretik 360 milla asago gagozanean, itxasoa kalma zuri zuritan egoten da, eta bertan azul ederrean txori bakarren gerizea ispillu baten lez ikusten da. Beñola, Espainia osoan eduriza aundiak izan zireanean, gu kubertan egon giñean Madrille-ko radioa entzuten, fraka txikiz jantzita, gaueko freskotxua artzen genduan bitartean. Gabeko orduan izaten da guretzako gozoenatarikoa. Afalduta gero, itxasoan trabes geratuten garenean, batzen gara danok baborrean, biztuten dau patrioiak zakurako argia, jezarten gara trunkin trunkil karel gaiñean, entzuten dogu radiotik ligako partiduen erresultadua, potzuten gara ezin geiago gure «Atletik»-k irabazten dauanean, akordetan gara Bermeo-ko gauzakaz, eta berba egiten kantsetan garenean, asten dira batzuk potxatan naiz duroitan, eta joaten dira emparaduak lotara.

Itxaso au guztiz aberatsa da. Potxak, erredin utsagaz artzen izan doguz, zenbat gura otzarea bete artean; eta ifioiz egunez urmeian sartzen bagara, aparejua ondora orduko, josi dogu arraiña, eta zelako arraiña: brekak, meroak eta abar; bein, tortuga eder bat be atrapatu genduan. Ardorean gabiltzanean, eskandaluzkoa izaten da askotan, artzen dogun arrain kantidadea: bokarta, sardiña, txitxarroa, berdela, makarela. «Ain zenbat diru irabaziko geunkean, sasoi onetan arrain au Bermeo-n bageunko!» —auxe izan

ten da olako gauetan barruko lagunen komentarioa.

Zimarroiak aurten gorabeera aundiak daukoz: sainja batzutan polito atrapetan izan dogu danok; beste batzutan oster, oso gitxi. Askotan pentsetan egoten gara, ea igitargiek edo egnraldiaren otz-beroak zerikusirik ete daukon arraiñaren ibilkereagaz. Nok jakin? Itxasazpiko bizimodua, misterio bat da oraindiño guretzako.

Aurten, txerbolea dabil asko: beste atun klase bat, egaluzea baiño txikitxuagoa, zazpi killotik beerakoa, erdaldunak *rayado* ta guk Bermeotarrak *zerrutxo* deritxaguna. Txerbola sarda itzalak ikusten izan doguz sarritan: itxaso osoa bitsetan, zeruko txori guztiak sarda gaiñean, eta arrain egazlariak igeska gure kostaduan. Ze aundia dan Jaungoikoa, olako gauza ederrak egin dituana! Eta nok esango leuke, arrain ori, ain ederra, prezio ain onean edonon saltzen dana guk ez dogula atrapetan edo atzera itxasora botetan dogula, arrain zantarra baillitzan? Au noredonok konpondu bear leuke; bestela, ez dabilta ondo gauzak Espaiñian.

Arrain zantarrak be, sarritan ikusten doguz: trompak, seroiak, mantak, akulabirigardak, lamproiak, daroiak; batez-bere duroiak, erderaz *tiburón* deritxenak. Izurdak ez dodaz arrain zantarren artean sartu gura, guztiz probetxugarriak dira-ta. Eurak altzetan deuskue askotan zimarroia; eta gose gareanean, gogoz jaten doguz euren gibel, biotz eta garaunak.

Eta txoriak zer? Zakatzekoak eta marikakak dabilnaz asko. Braiak eta kofrak barriz, igaz baiño gitxiago. Lantzean bein arrain aparejuaz txoritan ibiltzen gara, eta iñoiz jan dogu marikaka ta kofra aragiagaz egiñiko plater galanta. Gauetan, trabes gagozanean, noiz edonoiz txoriren bat etortzen jaku lo egiten barrura; beñiñola, zakatzeko bat atrapatu eban gure mutil batek,

txori koitadua branka gaiñean lo egiten egoala. Sarritan, baita mamarrotak-bere etortzen jakuz egaz barkura. Nik ez dakit zelan ez direan itoten bidean, kostatik urruin ibiltzen gara-ta. Beñiñola, txirritxaldoko bat sartu jakun barrura, eta aste bete luzean egon zan kanta ta kanta, karelopean ostuta.

Itxasoan gagozala, txitean pitean topetan doguz arrantzale baltzak; batel txiki batzutan ibiltzen dira sei edo zazpi morroi arraiñetan. Egun baten, izurda oso bat emon geuntsen, ura ta ogia be bai; eta eurak, ordez, eskerrak eta zazpi-zortziña killoko mero eder bi emon euskuezan.

Beste egun baten, Justo, *San Juan de la Cruz*-ko patroia, baltzakaz barik, bere anaia makiñisteagaz egon zan berba egiten; lenengo radiotik, eta gero barku merkantean bertan, bick alkarregandik urre urre egon zirean-da.

Beste bein, neuk be *Ciudad de Oviedo*-ko kapellauagaz radioz berba egin neban. Barku ori Dakar aldetik pasakeran, radiotelegrafistek euskeraz berba egiten entzun euskun antza; ta bertako kapitana ta kapellaua euskaldunak zirean lez, eureri emon eutsen urrean gure barri. Kapellaua Oriotarra, ta kapitana Portugaleta-koa. Kapellauak saludu bero bat egin euskun Bizkaitar arrantza-leeri, eta guk berari bardin erantzun. Asko poztu ginduzan bere berba sutsuakaz; eta arratsalde atako errosario santua geure intentziñoz errezatuko ebala esan euskun, barkuko pasajeruakaz batera.

Aolan bizi gara Dakar aldean. Gaurko, naiko dozue. Urrengoan esango deusuet geiago. Agur.

Dakar, 1960, zezeillak 25

Aita Imanol Berriatua

# Neska mutillak alkarregaz berbetan

Lenengo lenengo zorionak Errigoitiko gazte orreri. Benetan poztu ninduan zure erantzunak. Zure eretxi ori irakurrita ez ete dabe neskak be eurenik emongo? Ederra dogula nago alkar ezagutze ori, alkarren eretxien barri jakite ori. Zure ideakin bat nator. Gaur Prantziko GAZTE errebistan agertu dan beste erantzun bat jarriko dot, beste gazte asko erantzutera ansartu daitazan:

Lenengoz errebista onetan amazazpi urteko neskato batek idatzi eban «zer pentsatzen daben mutil gazteak neskak direa-la-ta» izenpean. Neskato oneri mutil bik erantzuten deutsee.

Zure artikuluak irakurri ondoan, guk be erantzun bat... Itanduten zenduan: «zer pentsatzen daben mutil gazteak neskak direa-la-ta», esan guraz zelakoa izan daiten gura dogun guk gura geunkean neskea.

Amazazpi urtekin **arrazoi** aundia dozu georari begirada bat jaurtitzen deutzazunean. Begirada ona, baiña ez luzeegia, zure edade orretan bada beste zeregiñik-eta.

Ona, ba, nolakoa nai geunkean izan daiten gure neskatoa:

Lenengo, eskola apur bat dakiana. Gaur egunekoa izan daitela. Jarrai daita moda apur bat eta onestidadez. Dantza jakin daitala, aita ta ama maitatu eta errespetatu daizala. Jenio onekoa, langillea, barruko eta bai kanpoko lanetan, bear onduetan. Gure erritar gizon zaar batek diñi «Lenago, emakumeak gizonak ainbat lan egiten eben kanpoko lanetan. Orain damalegez bizi gura dabe». Kanpoko lanak erdira emakumearentzat, baiña distraziño berriz izan bear dabe eurentzat. Guretzako be gozoago da uneda batzuk emazteagaz lan egitea. Ez dau larregi delikadea izan bear alde ederra dago soloan lan egiten dabengandik atzazkalak pintauta dabillengana.

Gura geunke baita bere semetxoak maitatu eta zuzen eziko dituana, arein kapritxoak egiten itxi barik; eta azkenez etxea zintar gordeko dauana.

Orra gure idea beiñenak. Ez dogu esater birtute guzti orrek dituana artuko dogunik ez, eztagoalako uts bakorik.

Zuen barrien begira dagoan *amazazpi urteko bi mutil gazte*.

*Kepa*

## OSTRAK

Itxasotik ataraten doguzan gauza on askoren artean, ostrak dira. Gure Euskalerriko itxas-bazter inguruak ostraz beterik dagoz, eta urte batzuk izango dira, orain baiña askozaz geiago egozala. Gaur-be, Kanala aldetik, ostrak ugari dagoz, onak eta ederrak.

Amar milla urtetik gorako euskaldunak ostrak jaten ebezan, Santimamiñen ikusten dogunez. Burdikadaka ostra-azalak dagoz atx-zulo aren inguruetan. Eta orrek diños-

ku, argi ta garbi, ostrak ezagututen ebeza-la, ta baita ondo aprobetxatu-be. Ostrea gauza ona da izan-be, jateko.

Eun ostra-klase inguru dagoz, gaur egunean. Geienak onak dira jateko. Baten batzuk klase txarrak-be badagoz, baiña gure itxas-inguruetan ez. Kanala aldean, klase bi dagoz, biak oso onak eta gozoak. Batzuk berde koloreak dira. Orreik aundiak izaten dira, geienetan. Beste batzuk, marroi-kolo-

rekoak dira, apalagoak, txikiagoak, baiña besteak baiña fiñagoak.

Ostrak ez daukie ez ankarik ez bururik, urdailla badaukie, eta baita zanak-be. Zementua baleukie lez inketan dira edo atxetan, edo arrietan, edo bata bestearen kontra. Ostrea da, arrautza geien ipinten daben pataria. Bagillean asi eta iraillerarte, bi milloi arrautza inguru ipinten ditu ostra bakotxak. Kume egin arte, ostrearen kapa barruan egoten dira. Orregaitik esaten da eta egia da, ERRE ez daukan illeetan ez dala ostrarik jan bear, kumegintzan dagozalako. Arrautzatik urtetan dabenian, laño baten moduan urtetan dabe itxasoko uretara, ta ule antzeko egotxu batzuekin ibiltzen dira lenengo egunetan. Sortuten direan guztiak, aundi egingo balira, mundu guztia laster beteko leukie, baiña txiki direan artean, itxasoko patari guztien janari dira. Gitxi gora bera, lau milloatik, BAT bakarrik egiten da aundi. Iru asteko bizia lortuten dabena, salbauta dago. Kontxea formetan asten jako, eta sakonean gelditu bearra dauko. Bere-berez, egotxuak gogortu egiten jakoz, eta ostra egitera doa. Bein iru urte bizi ezkerro, sasozko ostrak egiten dira, jateko modukoak.

Aundi egin da gero-be, badaukiez areioak itxasoan bertan. Itxasoko izarra deitzen jakon patari batek —“estrella de mar”— poliki jaten dauz ostra nagusiak. Begira zelan: Ostren ganean geratzen da, ta bere urdailleko azalagaz buelta emoten deutso ostreari. Orduan jaurtiten deutsie

ostreri jugo bat, eta ostrea zabaldu egiten da. Ta orduan, beingoan garbituten dabe ostrearen mamin gozoa.

Baita karramarroak-be, ondo konponduten dira ostrak jateko. Ara zer egiten daberen: Ostrearen ondoan dagoz geldi-geldi, luzaroan bear bada, ostrea zabaldu arte. Ta zabalduten danean, arritxo bat ipinten deutsie kontxa bien erdian. Alperrik ostrak alegiñak egiten dabez kontxak bata bestea-gaz itxeko, arriak enbarazu egiten deutsieta. Orduan karramarroak, nasai-nasai, erpea barrura sartu, ta jan egiten ditu.


Ostrea janari fin eta guztiz onã da gizonarentzat. Gure antxiñako Euskaldunak ondo ekien ori. Gaur ostrea asko jaten da mundu guztian. Australian dagozan ostrak ikaragarriak dira, plater aundi baten bestekoak. Gizon batentzat bategaz ondo dago. Frantzian berrogei milloi peseta ostra jaten da urtean.

Ostra geienak onak direala esan dogu, eta egia da. Baiña ostra txarrakaz kontu aundia artu bear da. Ostra preskua ezpada, edo ur zikiñean egon bada, ta barruan ur zikiña badauko, guztiz txarra da, beneno utsa da-ta. Ostreak itxasoko ura euki bear dau barruan, eta bizirik egon bear dau jateko.

Limoi tangada batzuk jaurti ezkerro, ai, ze gozoak dagozan!

Gernikan, 1960

ALDEKO



IA

# Euskaltzaindiak Bilboko Arriaga Teatroan aurten egin dauen jaialdian kantau zirean bertsoak

## **Basarri: Agurra**

Gipuzkoa'tik pozkidaz nator  
gaur zuen Bilbo maitera,  
Emen zeraten anai-arrebok  
biozki besarkatzera.  
Agur goxo bat al baliteke  
ezpañetatik atera  
Ega goxozan bijoa bizkor  
zuen guzior artera;  
Urte berrian sartu gera ta  
ekin deiogun aurrera!  
Sarri sarritan izan zagula  
ola batzeko aukera;  
Asmo berriak artu ditzagun  
begiratuaz etxera,  
Pausorik iñoiz eman gabetan  
geure buruen kaltera  
Eta daukagun pitxi onena  
etzagun utzi galtzera  
Arnasik degun arte guziok  
zaindu dezagun euskera!

## **Uztapide: San Iñazio Loyolakoari**

Zeru goitikan onuntz begira  
dago Iñazio deuna  
Loyolan sortutako seme bat  
gure zaindari deguna  
Mundu onetan nola ibili  
guri erakutsi ziguna  
Ikusi egin bearra zegon  
Jaun aren apaltasuna  
Bera aundia izanagatik  
txiki askoren laguna  
Jesukristoren dotriñagatik  
bere bizitza eman zuna  
Orain lareun urte ta geio  
mundu onetatik juna  
Guretzat ere bidean dator  
eriotzako eguna  
Seguru nago zeru bidean  
laguntza egingo diguna  
Lurralde onekin ezda aztuko  
bera baizan euskalduna.

## **Embeita: Bermeo aldetik denpora asko eztala Dakarrera joan direan arrantzaleai.**

Gure lurraren itxas bazterrak  
Alan diño istoriak  
Aldi danetan izan ditula  
Itxas gizon errimiak

Asi Elkano bardin Txurruka  
Matxin ta jarraitzailliak  
Arrantzaliak zetan esan bez  
Besteen parebagiak  
Dakar aldera juan dirian  
Gizon bulartsu ta aundiak  
Lagun arturik gure euskaldun  
Abade eta prailliak  
Batzuk etxeko ogien billa  
Arimen artzain bestiak  
Bitzuak dira euskaldun sendo  
Fededun Jainko zaliak  
Naiz ta atzerrian areintzat izan  
Irabaziak aundiak  
Jaioterria eztabe aztuko  
Euskaldun arrantzaliak  
Amaika olango arrantzale aundi  
Eta Eleiz gizon  
Emon dauz Euskalerriak

## **Mitxelena: Arantzazuko Amari.**

Arantzazuko mendi gañean  
Zauden amatxo maitea,  
Gaur Bilbaoko Arriagatik  
Nijua itz egitea.  
Egun batian gusta zitzaizun  
orko elorri artea,  
Naitasun geyo azaltzen dezu  
beti urtetik urtea.  
Naiz da eguzki gozoa eta  
berdin zayo elurtea,  
Ez dezu iñoiz pensatu izan  
Gu bazartu ta joatea.  
Biotza dezu zeruetako  
Gozotasunez betea,  
Guk ere, ama, maitazen degu  
Bai, zure borondatea.  
Euskaldun danak zeuregandurik  
Bildu gaitezen batea,  
Eriyotzeko orduan ere  
Gutaz oroitu zaitea.

## **Azpillaga: Lanari**

Esan didate esplikatzeko  
Zer aztarren duan lanak  
Herentzi auxer donatu zigun  
Lenengo sortu ziranak  
Ta arrezkeroz geren izerdiz  
Bizi gerade gizonak  
Zenbat diraden lanaren billa  
Gure erritik juanak  
Ikusirikan atzerritarrez

Beterik gure sakonak  
Emen badabiltz erdi negarrez  
Lana billatzen dutenak  
Nun dira lasai lana egiñez  
Biziko geran egunak  
Lagundu deigula jaunak  
Eta Begoñako Amak  
Edo bestela denpora gutxi  
Barru galdu gera danak.

### **Basarri: Munduko pakearen alde.**

Aspaldi ontan ezta entzuten  
Pakea itza besterik,  
Ondo dakigu gizonarentzat  
ez dagoala oberik.  
Alaz guztiaz beldurrez gabiltz;  
ez dago segurantzirik,  
Gauza bat esan, bestea egin;  
iñon ez konfiantzarik  
Bide ontatik ondoren onik  
ezpaitago etortzerik;  
Belen'go estalpeko kantuak  
ez daukate entzulerik,  
O, Jesus maite, ez da betetzen  
zuk jarritako legerik;  
Urte bi pasa bear lurrean  
eta gorrotoz beterik  
Alkar maitatzen ikasi arte  
ez da egizko pakerik!

### **Uztapide: Ama batek seaskan daukan semetxoari esango liokeana:**

Une onetan au zoramena  
seaskan det semetxoa  
Esnatu gabe zeramakian  
eguardi arte osoa  
Aldamenean bere zai nengon  
ura zan loa gozoa  
Orain begiak zabaldu ditu  
dirudiela usoa  
Zerbañ esan nai ta eziñ esan  
neri begira gairtoa  
Ateratzia nai du lorabait  
luzaturikan besoa  
Arrasaldian juango gera  
Josetxongana auzoa  
gero txorien kabien billa  
etxetik goiko basoa  
Txikia zera oraindik baño  
entzun zaidazu bersoa  
Zarzarorako zure bear naiz  
ta izan zaitetz zintzoa

### **Embeita: Baserriari.**

Biotz erdiko baserritarra  
Neure jaiotza tokia  
Zeinbateraiño maite zaitudan  
Ezta errez esatia

Zu zara gure bizibideko  
Egunaroko ogia  
Egunsentiko txori kantari  
Zoragarri ta pakia  
Euskal oituren gordelekua  
Fede sendoen aulkia  
Zuregandikan jatorku beti  
Guk bear dogun guztia  
Zugaz bizi da gure izkuntza  
Euskera maitagarria  
Besteen parebagia  
Askok txikitizat zaukezan arren  
Benetan zara aundia  
Euskalerrria jaso nai bogu  
Zaindu daigun baserria.

### **Mitxelena: Amodiozkoa.**

Amoriyozko naitasun ori  
Noizbait sortutzen da bera  
Gero indartzen joaten dana  
Egunetik egunera  
Lendabiziko ezkon gayetan  
oi da bere etorrera  
ta gutxiyago ez da izaten  
ezkondu ta ondorenera  
Emaztea ere pozez biltzeko  
bere senarren urrera  
esanaz ondo sartu ziñan zu  
Nere biotz barrenera  
Gu bañon zoriontsuagorik  
Iñor izango ote da  
Zenbat urteko mundu onetan  
alkartuak ote gera  
Bizirik geran artean beintzat  
Maite izango al gera  
Naitasun ori eraman zagun  
Jaungoikoaren aurrera.

### **Azpillaga: Bilbo eta Donosti arteko trenari.**

Beste bertso bat tren zarrarentzat  
Egin didate agindu  
Baju daguan gauza alitzatzen  
Ezingo naiz alegindu  
Donostin erten ta Bilboraiño  
Lanik asko izaten du  
Ain dago zarra begiratuta  
Errukia ematen du  
Saltua eta balantzaz berriz  
Edonora egiten du  
Estaziutan zai egon bear  
Beti eltzen da berandu  
Bein zartzen danai berriz juateko  
Gogua betiko kendu  
Balantzaz ezin zutindu  
Azurrak guziak mindu  
Lanikan asko egin du eta  
Erretiua meezi du.

*Valentín Embeita*

Neure bizitza zelangoa dan  
Gura neuke nik azaldu  
Naiz ta gizonak egin ez arren  
Nire esanak siñistu  
Mendietako aitz zuloetan  
Artzen dot neure ostatu  
An egiten dot esamiña  
Gilborra zelan asetu.

Ardi ta bildots bardin arjume  
Ollo ollanda ollarrak  
Orrexek dira nire gogoko  
Janari gozo bakarrak  
Eskuratzeko egiten dodaz  
Buru austiak gogorrek  
Neure atzian dabizelako  
Gizonak eta txakurrak.

Odol zalia deitzen deustie  
Gizon orrek azeriak  
Eurak aiztoa gogotsu sartu  
Bildots eta egaztiak  
Jataldi eta banket ederrak  
Egin astegun eta jai  
Txarto egiñen errua gero  
Azeriari emon nai.

Gizonak nai dau bere eskuti  
Gauzak erabilitia  
Bere gilborra asetu eta  
Azerientzat gosia  
Orrez gaiñera oindiño geiao  
Neure bizia kentzia  
Kostako jako nai dauen legez  
Ni tranpan arrapetia.

Ardi ta bildots ta egaztiak  
Baldin badodaz garbitzen  
Gizonak askoz geiago dituz  
Neurriz kanpora ondatzen  
Alan da bere euren burua  
Santutzat dabe agertzen  
Guriak egin dau lege obarik  
Munduan ezpada sortzen.

Euskalerrian jai  
Ta euskera gaitzetsi  
Euskaldunen izenik  
Ez dute merezi  
Izkuntzak jakin arren  
Zazpi edo zortzi  
Euskaldunak bear du  
Euskera lenbizi.

Euskalduna naizela  
Gogoratutzian  
Atsegiña sortzen zait  
Biotz biotzian  
Euskaldun bat ikusten  
Dedan bakoitzian  
Maitasuna sortzen da  
Gu bion artian.

## ASMAKIZUNA

Orain urte batzuk, iru seme eukazan ba-  
serriko gizon bat il zan. Eta bere testa-  
mentuan amaika zaldi itxi zituan iru se-  
meentzat, oneia banatuak: Erdiak seme zaar-  
renari; erdikoari, seme zaararen erdiak  
eta gazteenari, erdikoaren erdiak. Baiña kon-  
diziño bategaz: zaldirik ez iltea bakotxari  
bere partea emotorduan.

Buru-auste aunditan arkitu zan testamen-  
taria, zelan emongo eutsan bakotxari berea  
pentsa-ta pentsau. Azkenean, polito egin eba-  
zan gauzak egin-be, bakotxari zegokiona bai-  
ño geiago emonaz.

Ona emen zelan konpondu zan:

Ekarri eban berak etxean eukan zaldi  
bat, eta testamentuko amaika zaldiakaz, ama-  
bi egin ebazan. Orduan emon eutsien: 6  
zaldi seme zaarrenari (bere partea baiño  
erdi bat geiago); 3 erdiko semeari (bere  
parte baño lauren bat geiago); eta 2 seme  
gazteenari (berea baiño 5/8 geiago).

Olan gauzak egin da, zaldi bat gei-  
gelditzen da. Testamentariak amaika zaldi  
banatu ebazan, bakotxari berea baiño gei-  
em, eta bat sobretan zanez, artu ta ba-  
rriro etxera eroan eban, berea zan-da.

ALDEKO. - Gernika.